

2018. URTERAKO ETXEKO SU-EGURRA

BALDINTZA OROKORRAK:

- **Eskaera egiteko epea: URRIAREN 1etik 31ra (epea kanpoko eskaerak, 5 euro gehiago).**
- Epe hori bukatu ondoren zuhaitzen markazioa eginen da eta horren ondotik, berriz, loteen zozketa.
- **Zozketaren ondotik ez da eskaerarik onartuko.**
- Egur lotea emanen da familia unitate bakoitzeko.
- Ezin da loterik eskatu udalarekin zorraren bat baldin bada.
- **Debekatuta dago egurra herritik ateratzea, herriko bizilagunek aprobetxatzeko baita.** Udalak horren berririk baldin badu, heldu den urtean ez dio su-egurrik emanen hori egin duenari.

2018. URTERAKO ETXEKO SU-EGURRA (OHIKO MODUAN)

- Prezioa: **10,00 €** (lote eskatzerakoan ordainduko da); horretaz gain, egurra prestatzeko lanen kostea ere ordainduko da (zuhaitzak bota, bidera atera, etab.).
- Aprobetxamenduko alderdia: udalak erabakiko du. Auzoetako kasuan, Mendiko batzordeak aukeratuko ditu alderdiak.
- Zuhaitz eroriei dagokienez, zozketan sartuko dira.
- Iazko lotea atera ez dutenei ez zaie jada emanen eta lote horiek aurtengo zozketan sartuko dira.
- Loteak ateratzeko epea: 2018ko martxoaren 31rako.
- Epe horietatik aitzinera ateratzea debekatuta dago, eta aprobetxamendua egiten ez dutenei ez zaie emango hurrengo urtean.
- Bide bazterretan utzitako loteak bi hilabeteko epean kendu beharko dira handik.
- Lotearen zozketa egin ondoren, eskatzailearen ardurapean geldituko dira gainerako lanak.
- Lotea eramanez ondotik, lekua garbia utzi beharko da.

2018. URTERAKO ETXEKO SU-EGURRA (ETXERA ERAMANDA)

- Lote bakoitza 5 Tm edo 10 Tm ingurukoa izanen da.
- Lotearen prezioa aitzineko urteetakoaren antzekoa izanen da.
- Fidantzak (eskaera egiterakoan ordainduko dira):
 - 5 tonako loteak: 50 €
 - 10 tonako loteak: 100 €
- Udala arduratuko da lotea atera eta eskatzaileak errandako lekura garraitzeaz, eta eskatzailearen ardurapean geldituko dira gainerako lanak.
- Izena ematen dutenek erran beharko dute non nahi duten uztea egur lotea; aipatutako lekuak sarrera egokia beharko du garraio-kamioiarentzat.
- Lanen kudeaketan eragozpenik ez izateko, eskatutako sistemak eta tonak ezingo dira aldatu (hasieran eskatutakoa izanen da banatuko dena).